

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/025

Izenburua: KULTURAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Datak: 1942-1998

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 132 instalazio unitate

Sortzailea: KULTURAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Erakundearen historia:

Uztailaren 4ko 1558/1977 Errege Dekretuaren —Estatuko Administrazio Zentraleko zenbait organo berregituratzen dituen— 13.1 artikulua bitartez, Kultura eta Ongizate Ministerioa sortu zen. Ministerio hori honako organo eta erakunde hauek osatu zuten:

- Egungo Informazio eta Turismo Ministerioko unitate guztiek, salbu eta errege dekretu horretan Merkataritza eta Turismo Ministerioari esleitzen zaizkionak.
- Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetzak, bai eta haren zuzendaritza nagusiek ere —Lehendakari Ministerioaren mendeakoa—.
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko Arte eta Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak.
- Eskualdatzen ziren Zuzendaritza zentroi eta erakundeei atxikitako edo lotutako organo eta erakundeak.

Kultura Ministerioaren egitura organikoari eta eginkizunei buruzko abuztuaren 27ko 2258/1977 Errege Dekretuak ezartzen zuenez, Kultura eta Ongizate Ministerioak, aurrerantzean Kultura Ministerioa deituko zenak, esleituta zituen eginkizunak honako organo hauen bidez beteko zituen, departamentuko titularraren zuzendaritzapean:

- Kulturako Estatu Idazkaritza.
- Idazkaritzaordea.
- Idazkaritza tekniko nagusia.
- Ondare artistikoaren, artxiboen eta museoen Zuzendaritza Nagusia.
- Kultur Zabalkundearen Zuzendaritza Nagusia.
- Liburu eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusia.
- Musika Zuzendaritza Nagusia.
- Antzerki eta Ikuskizunen Zuzendaritza Nagusia.
- Zinemagintza Zuzendaritza Nagusia.
- Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia
- Gazteria Zuzendaritza Nagusia.
- Irrati difusio eta Telebista Zuzendaritza Nagusia.

Kulturako Probintzia Ordezkaritzak idazkariordearen mende egonen ziren, ezertan eragotzi gabe departamentuaren zuzendaritza zentroekiko zuen mendekotasun funtzionala.

302/1978 Errege Dekretuak, Kultura Ministerioaren probintzia ordezkaritzen egitura organikoari buruzkoak, ordezkarien eskumenak ezarri zituen:

Honako hau zegokien probintziako ordezkariei, bakoitzari bere lurralde eremuan, departamentuko zerbitzu guztien agintari goren gisa: Kultura Ministerioak bere eskumeneko gaietan emandako lege xedapenak betetzen direla zaintzea; ordezkaritzako zerbitzuak zuzentzea; departamentuaren ordezkarizate, batez ere honako alderdi hauei erreparatuta: erakunde bakoitzaren kultura ondarearen zuzendaritza, babesa eta zabalkundea, monumentu aberastasunaren gehikuntza, eta, oro har, kultur sorkuntza artistiko eta intelektualaren sustapena; eta departamentuak probintzian jarduteko proposamenak egitea, kontuan hartuta administrazio jarduerak horrekin zerikusia zuten probintziako erakunde eta entitateekiko lotura eta lankidetzak.

Otsailaren 10eko 392/1978 Errege Dekretua —Kultura Ministerioaren Probintzia Ordezkaritzen egitura organikoari buruzkoa— garatzen zuen Aginduen arabera, Nafarroa lehen mailakoa zen, eta honela berregituratu zen:

- Kultura Sustatzeko Atala, bulego hauekin:
- Inbentarioa eta katalogazioa.
- Ondarearen zainketa
- Sustapena eta arte adierazpenak.
- Kultur ekintzako atala, bulego hauekin:
- Kultur entitateak.
- Liburutegiak.
- Kultur jarduerak.
- Kultur animazioa.
- Gizarte eta kultur jardueren atala, bulego hauekin:
- Gazte jarduerak.
- Komunitate sustapena.

2) Probintzia Idazkaritzaren mendekoak izanen ziren unitate hauek:

- Baliabideen atala, bulego hauekin:
- Argitalpenak.
- Irrati-difusioa, Telebista eta Publizitate jarduerak.
- Tramitazio administratiboa.
- Barne Araubideko Atala, bulego hauekin:
- Ekonomiko-administratiboa.
- Lege gordailua eta Jabetza intelektualeko erregistroa.

3) Probintzia ordezkariei mende, zuzenean, idazkaritza tekniko bat egonen zen, bulegoaren maila organikoa izanen zuena. Haren eskumenetan sartuko zen agintzen zitzaizkion azterlanak, txostenak eta proiektuak egitea, bai eta harreman publikoen eta protokoloaren arloko gaien eta ordezkariei eskumen zuzen ziren gaien ardura izatea ere.

Apirilaren 11ko 815/1986 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Kultura Ministerioaren Probintzia Zuzendaritza ezabatu zen. Horren aitzinetik, urtarrilaren 24ko 335/1986 Errege Dekretuak ezarritako kultura, kirol, gizarte laguntza eta sustapen soziokulturaleko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatu ziren.

Transferentziak 1986ko urtarrilaren 1etik aurrera izan ziren eraginkorrak.

Funts hau osatzen duen dokumentazioa bat dator ordezkaritza horrek aipatutako unitateak sortu zirenetik betetako eginkizunekin. Horrez gain, bertan dago Informazio eta Turismo Ministeriotik jasotako dokumentazioa ere. Ministerio horrek, Estatuko Administrazio Zentrala berrantolatzen duen 1951ko uztailaren 19ko Lege Dekretutik eta 1952ko otsailaren 15eko Dekretutik abiatuta, komunikazioaren, zinematografiaren eta antzerkiaren arloko eskumenak gauzatu zituen, besteak beste —ordura arte, Hezkuntza Nazionaleko Ministerioaren mendeko Herri Hezkuntzako Idazkariordetzari zegozkion—.

Halaber, Zinemagintzaren eta Ikus entzunezko Arteen Institutuen dokumentazioa sartu da. Erakunde hori Estatuko Aurrekontuei buruzko 50/1984 Legeak sortu zuen (90. art.). Apirilaren 24ko 565/1985 Errege Dekretuaren bidez —Kultura Ministerioaren eta haren erakunde autonomoen oinarriko egitura organikoa ezartzen zuena—, erakunde autonomo hori Kulturako ministroaren mende jarri zen, beste bi erakunde hauekin batera: Gazteriaren Institutua (funstzat hartu dena,

erakundearen jatorria eta garapena kontuan hartuta, bai eta gordetako dokumentazioa ere) eta Emakumearen Institutua.

Aipagai dugun institutuaren dokumentazioaren artean, soilik korrespondentzia kutxa bat kontserbatzen da, Kultura Ministerioko Zerbitzu Periferikoen (transferentziak egin ondotik Foru Komunitatean gelditu baitziren) eta Emakumearen Institutuaren artekoa.

Funtsaren antolamendua:

025.01 GOBERNUA

025.01.01 Eskumenen eskualdaketa

025.02 ADMINISTRAZIOA

025.02.01 Jarduteko arauak eta jarraibideak

025.02.02 Korrespondentzia

025.02.03 Probintzia Zuzendaritzaren txostenak

025.03 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

025.03.01 Aldi baterako kontratazioa

025.03.02 Langileen espedienteak

025.03.03 Baimenak eta lizentziak

025.03.04 Ordainsariak

025.03.05 Prestakuntza

025.03.06 Ikuskaritza

025.04 BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

025.04.01 Kontabilitate arloko espedienteak

025.05 ONDASUN HIGIEZINEN KUDEAKETA

025.05.01 Higiezin kudeaketa

025.06 KULTUR ONDAREAREN KONTSERBAZIOA

025.06.01 Ondare arkitektonikoaren kontserbazioa

025.07 KULTUR JARDUEREN ETA ARTE ADIERAZPENEN SUSTAPENA

025.07.01 Kultur jarduerak

025.07.02 Kultur jarduerak sustatzeko eta bultzatzeko laguntzak

025.07.03 Kultur Informazioko Puntuak (KIP)

025.07.04 Irakurketari eta literatur sorkuntzari laguntza

025.07.05 Arte adierazpenak sustatzeko eta bultzatzeko laguntzak

025.08 ZINEMAGINTZAREN ANTOLAMENDUA, SUSTAPENA ETA ZABALKUNDEA

025.08.01 Zinema aretoen kontrola

025.08.02 Zinemagintza enpresen kontrola

025.08.03 Zinema aretoak egokitze laguntzak

025.09 IRRATI DIFUSIOA ETA PUBLIZITATEA

025.09.01 Irrati eta Telebistarako batzordearen espedienteak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.